




1987-1992



GERNIKAKO KULTURARI ETA BAKEARI BURUZKO NAZIOARTEKO JARDUNALDIAK

Gernikako bonbardaketa oroitzeko ekitaldien barruan antolatzen dira, herriko Udalarekin elkarlanean. Topaketa- eta hausnarketa-gune bat dira, unibertsitateko ikasle eta irakasleentzat eta interesa duen edonorentzat. Bere helburuak bake-agendan sortzen ari diren proposamenak partekatzea eta gaurkotasun sozial eta politikoko gaiei buruz eztabaidatzea dira. Euskal unibertsitateen, nazioarteko hainbat masterren eta euskal administrazioen laguntza dute. Urteko programak jarduera akademiko eta artistikoak, hitzaldiak, mahai-inguruak eta elkarrietzak horizontalak uztartzen ditu. Aurrez aurre eta telematikoki. 32 edizio egin dira.

+ INFO

GERNIKA GOGORATUZ. BAKEAREN ALDEKO IKERKETA ZENTROA

Memoriaren eta bakearen kulturaren arloan egiten du lan. Bere helburua «mundu mailan eta Euskal Herrian, bereziki, bake emantzipatzaile eta justua lortzen laguntzea da, hausnarketa zientifiko batek sortutako edo babestutako ekarpenekin, eta Gernikako hiriari edota sinboloari lotutakoekin; eta Eusko Legebiltzarrak 1987ko apirilaren 10ean onartutako Legez besteko Proposamena, Gernikan Bakearen aldeko Ikasketa Zentro bat ezartzekoa, betetzea». 1994tik, Gernika Gogoratu Fundazioak babesten du zentroa.

+ INFO

MEMORIA

Ikerketa-ildo hori Gernikako Bonbardaketaren Memoria Kolektiboarekin hasten da. Bi helburu ditu: bonbardaketak jasan dituzten hirietako bizipenen trukea sustatzea (Gernika, Dresde, Hiroshima eta Nagasaki) eta belaunaldien arteko elkarrietzak bultzatzea. "Gernika y Alemania. Historia de una reconciliación", "La huella humana", "La voz visual", "Gernika Es", "Guernica/ Gernika: Desde el cielo al fondo", "Memorias compartidas", "Mugak" eta "Intercambio de Cielos. Gernika-Berlín". Adiskidetzarako hiru keinu nabarmentzen dira: Petra Kelly 50. , Roman Herzog 60. , eta Von Richthofen eta Von Moreau oroitzapenen 80. urteurrenean.

+ INFO



Gernika. Bakearen sinbologia

NAZIOARTEKO ARLOA ETA GATAZKA POLITIKOETAN ESKU HARTZEA

Gatazka politikoak aztertzeko eta eraldatzeko nazioarteko talde bat osatu zen, Christopher R. Mitchell eta John Paul Lederachek osatua, eta Juan Gutierrezek koordinatua. Barne Ministerioren eta ETaren artean bitartekaritza lanak egin ziren. 1994an Bakea Eraikitze eta Gatazkak Konpontzeko Europako 2. Konferentzia antolatu zen. Ipar Irlandan eta Alemanian Mintegiak egin ziren, eta Osijekeko (Kroazia) Bakearen aldeko Zentroarekin lankidetzan, gatazkak eraldatzeko prestakuntza-programa bat koordinatu zen 1997-1999 artean.



BAKEAREN ALDEKO HEZKUNTZA

Hezkuntza-programak hasten dira, bai unibertsitatean, bai komunitatean. Gernikan Gatazkak Eraldatzeko Ikastaroko 24 edizio egin dira. Eskolaren esparruan, Berdinen arteko Bitartekaritza proiektua garatu zen, eta Bigarren Hezkuntzako Institutuetan aholkularitza lanak egin ziren (1989-2003). Europako "EuRed" sarean parte hartzen da. Espetxeen eremuan, Martutenen eta Langraizen, gatazkak eraldatzeko prestakuntza-proiektu bat inplementatu zen (2001-2004). Gernika Programa hasten da eta XXI. mendeko Bakearen Hiriak hezkuntza-komunitateari eta gizarte-eremuari zuzendutako ibilbidea eta hezkuntza programarekin hasten da.

+ INFO



GERNIKA SAREA. Adiskidetzera bideratutako prozesuak babesteko Europako proiektua.

1996 eta 2003 bitartean egindako ikerketa-, prestakuntza- eta eragin-proiektu bat da. Adiskidetzera bideratutako eta bakea eraikitze prozesuak bultzatzeko nazioarteko sare bat sortzen da.

Nabarmentzekoak dira "Semillas de reconciliación" eta Gernikako Bakearen Museoan ikusgai dagoen "Caja de Herramientas" izeneko gatazken tratamendurako eskuliburu teoriko eta praktikoa. Truke akademikoa eta soziala bultzatzen dira. 115 gaztek egin dituzte praktikak. 41 monografia, 9 liburu eta 22 dokumentu argitaratu dituen Gernika sarea sortu da.

+ INFO

Gernika sarea. Adiskidetze-horizontea



GERRAREN ETA ERAGIN POLITIKOAREN SALAKETA GERNIKATIK


Hainbat kanpainia egin dira. Bi dira aipagarrienak. Bata, Alemaniako Defentsa Ministerioaren aurrean, errekrutatze-karteletan "Guernica" delakoa erabiltzeagatik eta "Guernica" izeneko ekimena, NNUUren egoitzan Irakeko inbasioaren aurrean Gernikako artelana ezkutatzegatik (2003). Berrikiago, 2020an, elkartasuna adierazteko deia egin zaio Cabo Delgadori, gero eta militarizazio handiagoa eta biztanleria zibilaren aurkako eraso bortitzak areagotzearen ondorioz. Horretarako, Europako Parlamentura zuzendutako galdera luzatu zen. AiPazen Errusiak Ukrainara egindako inbasio militarra gaitzesteko agiria babesten da, eta hainbat nazioarteko kanpainetan parte hartzen da (Stop Killer Robots eta TPAN).

+ INFO

ARTEA ETA BAKEA

Dimentsio sinbolikoa eta sortzailea funtsezkoa da ikerketa-parte-hartze prozesuetan. "Adiskidetzeko Artea" Katalogoak lankidetzaz luzea hasi du Gernikako Bakearen Museoarekin, Kultur Etxearekin eta Bill Kellyrekin. Bere fruituen artean: "Dia Tekhné: artearen bidezko elkarrizketa", Artearen eta Bakearen Nazioarteko Topaketen zazpi edizio; Arte, Memoria eta Demokrazia Kongresua, "¡batzART Elkarrizketa eta demokrazia parte-hartzailea babesteko batzar sortzaileak!", Arte eta Bakea Jardunaldiak Bolivian, "Zapalduaren Antzerkia" ikastaroa, "Gorputz gramatikalak" eta Berbarbola konponketa sinbolikoko esku-hartzea.

+ INFO



GIZA ESKUBIDEAK LATINOAMERIKAN

2004tik 2011ra bitartean Kolonbian eta Guatemalan bost proiektu egiteko aukera ematen duen lankidetzaz hasi zen hainbat erakunde akademiko eta sozialekin: "Manigua: Giza Eskubideak eta gatazken tratamendua", "EduPaz: Gatazken tratamenduan eta bizikidetzaz baketsu demokratikorako balioetan hezte", "Manoa: Hezkuntza ludikoa Bake Kulturaz gazteentzat", "Garidka: Amazoniako lurraldean bizikidetzaz baketsua lortzeko balioak eta ekintzak indartzea", "Cronotopo de lo femenino. Generoari buruzko prestakuntza eta sega baten eraikuntza" eta, "Kaji Tulam: Memoria, egia, justizia eta adiskidetzaz". Gainera, New York, Argentina eta Txileko Euskal Etxeak bisitatzen dira.

Gernika gogoratzeko artea

“BAKEAREN HIRIA” UNESCO SARIA Gernika-Lumo hiriari 2002-2003

Hiru une garrantzitsu ditu: Gernika eta Alemania adiskidetzeko prozesua, eta Gernika Gogoratuzen eta Gernikako Bakearen Museoaren sorrera. Aurretik, “Alemaniako Merezimenduaren Gurutzea” saria eman zioten Juan Gutierrez (1999), eta ondoren: “Urrezko Korregai/ Coreguaje Kondekorazioa”; “Bakearen eta Adiskidetzearen aldeko Gernika”, Juan Gutiérrez eta Michael Kasperri; “Deia. Hemendik” 2004ean, “1000 Emakume eta Nobel Sari bat”, Mireia Urangari, 2005ean; “René Cassin Saria”, María Oianguren 2010ean, “Landaburu Ikerketa XIV Saria” Jokin Alberdiri 2015ean; “Peironcely 10” 2021ean; “Euskal Kulturarako Cenarrusa Fundazioa” Gernika-Lumoko alkateari, ICIPeko “Bake Eraikuntzaren Saria” eta Elxeko Udalak emandako “Reconocimiento Cultura de Paz en el día de los DDHH” saria 2022an.

+ INFO



BIZI NAIZEN LEKUTIK: Identitatea eta kulturartekotasuna

Kulturarteko agertokiak eraikitzen laguntzeko Bilgune Sarea bultzatzen da. “Bizikidetzako Programa Integralak” koordinatzen dira, Udalarekin elkarlanean, 2004tik. EHUrekin lankidetzan Kulturartekotasunari buruzko sei mintegi-tailer egin dira (2003-2008). Migrazio-prozesua jasotzen duten gida praktikoak eta dokumental bat argitaratu dira. “Hiru Izkiña”, Caqueta, Rif eta Urdaibaiko gazteekin esperientzia komunitarioen trukearekin elkartasunezko lana zabaltzen da. Larrialdiko laguntza-kanpainetan (Rif, Comanesti eta Calaiseko “Jungla”) eta “Elkargarapena” eta “Munduko Arrozak” programetan parte hartzen da.

+ INFO

CRIC EUROPAR PROIEKTUA: “Identitatea eta gatazka. Gatazkaren osteko kultura- ondarea eta identitateen berreraikuntza”



Ikerketa programa hau, 2008-2012 urteetan Cambridgeko Unibertsitateak koordinatutako proiektua da, eta honako helburu hau du: kultura-ondarea suntsitzean, eta ondoren, berau modu selektiboan berreraikitzean, izaten den identitate-inpaktua ikertzea. Bost kasu aztertu ziren: Frantzia, Alemania, Bosnia, Zipre eta Espainia. Gernika Gogoratuzek bonbardaketaren memoria kolektiboa eraikitzeko prozesua eta baita bere

nortasun garaikidean integrazioa eta leku sinbolikoen ikerketa burutzen du: Astra, arma-fabrika. CSICek, bestalde, martxoaren 11ko atentatuaren ondorengo dolua eta memoria eta Madrilgo Carabanchel kartzelaren kasua jorratzen ditu.

+ INFO



HEZKUNTZA HISTORIKO-ZIBIKOAREN ZEREGINA EUROPAKO HERRITARREN ERAIKUNTZAN

"Imagine Peace", "Living with Conflicts", "European Youth Weeks", "Connect: Buld Net Work" 2002 eta 2016 artean eta "Weimar" proiektuak. Hezkuntza historiko eta zibikoaren zeregina mapatu, deskodetatu eta prozesatu dira gerrek eta diktadura garatzaileek Europako historian hezkuntza garaikidean izan duten eragina aztertzeko. Honako helburu hauek ditu: giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza sustatzea eta Europako gazteen agentzia eta gaitasunak indartzea. Kroazian bi udako kanpamendu antolatu dira 2018an eta 2022an; 105 gaztek parte hartu dute eta 12 Urdaibaikoak eta Bizkaikoak izan dira.

+ INFO



MEMORIAREN ERAIKUNTZA SOZIALA EUSKAL HERRIAN ETA KOLONBIAN

ETAren 2011ko amaieraren, 2017ko armagabetzearen eta 2018ko desagitearen ondoren, aro berri bat irekitzen da gizartearentzat. Ingurune babestuetan topaketak errazteko eta indarkeriaren bidegabekeria eta horrek bizitza pertsonalean eta sozialean duen eraginaz jabetzeko programak sortzen dira: "Memorialab. Memoria soziala eraikitzeko herritarren topaketak" (2013-2018) eta "Afaloste. Bizikidetza pil pilean. Laborategi gastronomiko sozialak" (2013-2022), GBM, Bakeola eta Eskubidez elkarteekin lankidetzan.

2022an, "Egia Elkarrizketak eta Memoriak" zabaltzen dira, Kolonbiako bakerako eta adiskidetzarako herritarren prestakuntzarako ekimen berritzaileen Aliantzarekin lankidetzan.

+ INFO (MEMORIALAB)

+ INFO (AFALOSTE)



JARDUNALDI ANTIMILITARISTAK ETA GERNIKAKO MEMORIA HISTORIKOA

2013an, Astra Koordinatzailearekin, Udalarekin eta herriko Kultur Etxearekin lankidetzan, Bilgune Sareak gogoeta eta adierazpen artistikoko topaketa hauek antolatzen zituen lehen aldiz Astran, arma-fabrika zaharrean, bere balio sinbolikoagatik. Bere helburuak militarismoa eta gerraren industria salatzea dira, baita memoria historikoa berreskuratzea ere, bere leloan jasotako proposamenari jarraituz: "Gizateria ez dago babestuago zenbat eta armatuago egon, orduan eta garatuago egoteagatik baizik". 9 edizio presentzial eta online bat egin dira. Memoriak editatu dira.

+ INFO

Memoria eta artea bakearen pedagogia gisa

ITSASORATZE ARTIBISTA: Arteterapia eta Artibismoa

Gure garaiko gizarte-larrialdiei heltzeko eta artearen bidez giza eskubideak defendatzeko ikerketa, partaidetza eta erakusketa programa. Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuko Bakearen Itsasargirako Gernikako Bakearen Museoarekin batera egindako ekimena da. Hainbat jardura egin ziren Euskadin: elkarrizketa-zirkuluak, laborategiko saioak, ekintza zibikoak, erakusketak eta forumak etab., online katalogo batean argitaratutako prozesuaren sistematizazioan jasotzen direnak.

+ INFO

Itsasoratze Artibista
La Embarcada Artivista



BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN EKONOMIA EUSKAL ENPRESETAN

2016an, bakearen eraikuntzan ekonomiak duen eraginari buruzko ikerketa- eta eragin-programa bat hasi zen. Bost laborategi egin dira EHUgunerekin (EHU/UPV), REAS Euskadirekin, Mugarik Gabeko Ekonomialariekin eta ONGDaren Koordinakundearekin lankidetzan, helburu bikoitzarekin: bake-ekonomiaren kontzeptuaren inguruko hurbilketak jasotzea eta arlo publikoaren, pribatuaren, hirugarren sektorearen eta akademiaren arteko elkarrizketa-gune bat erraztea, euskal enpresek arlo horretan dituzten eskubide eta betebeharren eta eraginen (positiboak eta negatiboak) inguruan duten jarduna hobetzeko proposamenak egiteko.

+ INFO

PLANGINTZA ESTRATEGIKOA ETA EKONOMIKOA, ALIANTZAK ETA ZAINZA-POLITIKAK

Honako plan hauek daude: "IkerGogo. Kudeaketa Plan Estrategikoa" 1. Fasea (2017-2021) aldian eta 2. Fasea (2022-2025). "BiziGogo. Genero Plana eta DSG, ikuspegi intersektionalarekin eta begirada feministarekin". Bilgune Sareko, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuko Aholku Batzordeko, Eskubidez, Aipaz, IPB, SOC, Eurobasque eta SKR eta TPAN kanpaineneko kide da. Bere gain hartu ditu Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzako Elkarteen Foroaren (2007-2011) eta Eusko Jaurlaritzaren Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren Aholku Batzordearen (2018-2020) lehendakaritzak. Fiare Banka Etikoko bazkidea da.

+ INFO



GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Gaitasun kolektiboen ikuspegia eta bizi-alternatibak eraikitzea.

Proiektuak, GM, UPV/EHU, CES-UC, UT eta UAekin lankidetzan, ikerketa-ildo berri bat hasi du, bi helburu hauekin: nazioz gaindiko boterearen eta arazo ekosozialen eragina ezagutzea eta Mozambique, Kolonbia eta Urdaibai lurraldeetatik proposatutako erresistentziak eta alternatibak laguntzea.

+ INFO



Bakeari eta Gatazkei buruzko IKERKETETAN ESPEZIALIZATUTAKO LIBURUTEGI DIGITALA


Liburutegia 1990ean ireki zen eta teknologia berrietara egokitu da. Gaur egun, 6685 erregistro dituen datu-basea du eta kontsultaz zerbitzua eskaintzen du aretoan. Gernika Sareko 41 lanak biltzen dituzten bi webgune kudeatzen dira, eta beste 24, beste erakunde batzuekin lankidetzan argitaratutakoak. Jarduerak "BerriGogo" buletinaren eta sare sozialen bidez zabaltzen dira. Liburutegi digitala aktibo egongo da eta 2023an "Memoria eta Bakea" izeneko atal propioa izango du.

+ INFO

ESKERRAK ETA OROITZAPENA

Denbora honetan zehar, pertsona askok lagundu digute beren dedikazio eta konpromisoarekin. Eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei, eta "In memoriam" jaso nahi ditugu dagoeneko gure artean ez daudenak: Michael Kasper eta Irune Ondarza, zuzendaritza-batzordekoak. Duela gutxi, Luis Iriondo eta gurekin izan ziren bonbardaketatik bizirik atera ziren beste batzuk, Pedro Baliño, Miren Gomeza, Itziar Arzanegi, Javier Alberdi, Igone Olaeta eta Juan Luis Zuzaeta eta Eduardo Vallejo alkateak eta Juan María Seijo eta Imanol Zubizarreta zinegotziak eta Joseba Arregi Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua.





PROIEKTUAK ETA SAREAK

PROIETUAK

● Koordinazioa ● Lankidetzia

LAN-ILDOAK		
		
		

SAREAK

MOTAK	



PROIEKTUAK ETA SAREAK


PROIETUAK

● Koordinazioa ● Lankidetzaz

LAN-ILDOAK	 
	 

SAREAK

MOTAK	



PROIEKTUAK ETA SAREAK


PROIETUAK

● Koordinazioa ● Lankidetzak

LAN-ILDOAK		
	●	●
	●	●

SAREAK

MOTAK	



PROIEKTUAK ETA SAREAK

PROIETUAK

● Koordinazioa
● Lankidetzaz

LAN-ILDOAK		

SAREAK

MOTAK	



PROIEKTUAK ETA SAREAK

PROIETUAK

● Koordinazioa ● Lankidetzatza

LAN-ILDOAK	
	 
	 

SAREAK

MOTAK	



PROIEKTUAK ETA SAREAK

PROIETUAK


● Koordinazioa ● Lankidetza

LAN-ILDOAK	
	 
	 

SAREAK

MOTAK	

TALDEAREN HISTORIKOA



LOTURA MOTA

Pax zk.	Lotura
83	Laborala, ikerketa eta lankidetzak
100	Praktika akademikoak eta sozialak
14	Ordezko gizarte-zerbitzua
38	Boluntarioak

